

B

Bilbao

2021

Ekainak
Junio

28

Uztailak
Julio

3



BABESLEAK:



TRAVESIA - ZIRRIKU FIRINIOAK
Travesia Interreg lan-kidetzako proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzen duena, POCTEFAren bidez.



LAGUNTZAILEAK



HEMENGO BAZKIDEA DA:



Ekainak
Junio

28



Uztailak
Julio

3

Ekitaldi hauetako sarrera dohainik da (*); leku alde aurretik erreserbatu daiteke. Ikuskizuna hasi baino 48 ordu lehenagotik 2 ordu lehenagora arte egin daitezke erreserbak, www.bilbokokalealdia.eus web-orrian. Gehienez 2 toki erreserbatu ditzake pertsona bakoitzak; ikuskizuna hasi baino 15 minutu lehenagora arte izango du balioa erreserbak eta horiek diutuztenak ordu erdi aurretik has daitezke sartzen esparrura.

Antolatzaileek pertsona bakoitzaren jarlekua erabakiko dute eta haien artean 1,5 metroko segurtasun-distantzia mantenduko dute. Guztiz debekatuta dago eserlekuak mugitzea eta kontzertuan jaikitzea.

Nahitaezkoa da indarrean dauden babes eta higiene-neurriak betetzea. Arau eta neurri horiek ondorengo webgunean daude jasota: www.bilbokokalealdia.eus

NAHITAEZKOA DA MASKARA ERABILTzea IKUSKIZUN OSOAN.



WWW.BILBOKOKALEALDIA.EUS
Bilboko Udalak antolatzen du
Organiza el Ayuntamiento de Bilbao
94 420 48 70 • cultura@bilbao.eus

B
Bilbao

* JEAN PHILIPPE KILOLAS: Sarrera 3 €, www.bilbokokalealdia.eus web-orrian eskuratu daitezke. Batutako dirua ADEMBI - Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkarteari emango zaio.

EKAINA

ASTELEHENA 28

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

KARAKOIL PRODUCTION (Euskal Herria - Iparraldea) *Mila eta bat loreen lorategia* (Arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUA

“BONI” eta JUAN PALOMO (Euskal Herria) (Arratsalde osoa)

17:30 PERGOLA

ROJO TELÓN (Euskal Herria) *Nudo* (50 min)

18:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

DELÁ PRAKÁ CÍA. (Frantzia/Brasil) *Maiador* (45 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) *Calor* (50 min)*

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

MAITE GUEVARA (Euskal Herria) *¡Qué Buen Día!* (50 min)

19:30 PERGOLA

ROJO TELÓN (Euskal Herria) *Nudo* (50 min)

20:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

DELÁ PRAKÁ CÍA. (Frantzia/Brasil) *Maiador* (45 min)

20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) *Calor* (50 min)*

22:00 ARRIAGA PLAZA

COMPAGNIE N°8 (Frantzia) *Garden party* (70 min)

EKAINA

MARTITZENA 29

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

KARAKOIL PRODUCTION (Euskal Herria - Iparraldea) *Mila eta bat loreen lorategia* (Arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUA

“BONI” eta JUAN PALOMO (Euskal Herria) (Arratsalde osoa)

17:30 PERGOLA

AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria) *Out* (20 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

LIBERTIVORE (Frantzia) *Phasmes* (30 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) *Calor* (50 min)*

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

MAITE GUEVARA (Euskal Herria) *¡Qué Buen Día!* (50 min)

19:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

LA MAIN S'AFFAIRE (Frantzia) *All Right!* (40 min)

19:45 PERGOLA

AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria) *Out* (20 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

LIBERTIVORE (Frantzia) *Phasmes* (30 min)

20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) *Calor* (50 min)*

22:00 AREATZA

PIA (Portugal) *O₂ Oxygen* (50 min)

EKAINA

EGUAZTENA 30

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

KARAKOIL PRODUCTION (Euskal Herria - Iparraldea) *Mila eta bat loreen lorategia* (Arratsalde osoa)

17:00 PARKEAREN INGURUA

“BONI” eta JUAN PALOMO (Euskal Herria) (Arratsalde osoa)

17:30 PERGOLA

MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA (Euskal Herria) *ZIRKUS* (50 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

LIBERTIVORE (Frantzia) *Phasmes* (30 min)

18:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) *Bidearen amaiera* (60 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) *Calor* (50 min)*

18:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

LA PEZ KONPAINIA (Euskal Herria) *Secreto n° 12* (45 min)

19:30 PERGOLA

MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA (Euskal Herria) *ZIRKUS* (50 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

LIBERTIVORE (Frantzia) *Phasmes* (30 min)

20:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) *Al fin del camino* (60 min)

20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) *Calor* (50 min)*

22:00 ARRIAGA PLAZA

LA MAIN S'AFFAIRE (Frantzia) *En Attendant La Suite* (60 min)

UZTAILA

EGUENA 1

17:00 GAS PLAZA

ROUGE ELEA (Euskal Herria - Iparraldea) *¡Aquí estamos, todo bien!* (40 min)

17:30 AREATZA

KOLEKTIVO KONIKA (Euskal Herria-Katalunia) *La punta de mi nariz* (50')

18:00 AREATZAKO TINGLADOAK

ALTA GAMA CÍA. (Katalunia) *Mentir lo mínimo* (50 min)

18:30 AREATZAKO KAIA

TROCOS LUCOS (Madril) *Tartana* (50 min)

19:15 GAS PLAZA

ROUGE ELEA (Euskal Herria - Iparraldea) *¡Aquí estamos, todo bien!* (40 min)

20:00 AREATZA

KOLEKTIVO KONIKA (Euskal Herria-Katalunia) *La punta de mi nariz* (50')

22:00 ARRIAGA PLAZA

ZEN DEL SUR (Andaluzia) *Órbita* (55 min)

*Sarrera 3 €; www.bilbokokalealdia.eus web-orrian eskuratu daitezke. Batutako dirua ADEMBI – Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkarteari emango zaio.

UZTAILA

BARIKUA 2

17:00 AREATZAKO TINGLADOAK

EVA GUERRERO CÍA. (Euskal Herria) *Gorpuztu laburra* (15 min)

17:15 GAS PLAZA

JOE SATURE ET SES JOYEUX OSSELETS (Frantzia) *Ouh La La!* (60 min)

18:15 AREATZAKO KAIA

TROCOS LUCOS (Madrid) *Tartana* (50 min)

19:00 AREATZAKO TINGLADOAK

EVA GUERRERO CÍA. (Euskal Herria) *Gorpuztu laburra* (15 min)

19:15 AREATZA

ARBRE À VACHE (L) (Frantzia) *Goodbye Persil* (40 min)

19:45 GAS PLAZA

JOE SATURE ET SES JOYEUX OSSELETS (Frantzia) *Ouh La La!* (60 min)

20:30 AREATZAKO TINGLADOA

ALTA GAMA CÍA. (Katalunia) *Mentir lo mínimo* (50 min)

22:00 BIZKAIA ARETOA-UPV/EHU

HARROBI (Euskal Herria) *Harría Herria* (20 min)

22:00 ARRIAGA PLAZA

DEABRU BELTZAK (Euskal Herria) *Su danborrak* (25. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia) (35 min)

UZTAILA

ZAPATUA 3

17:00 AREATZAKO TINGLADOAK

ERTZA (Euskal Herria) *DYE DYE* (25 min)

17:30 AREATZAKO KAIA

LA BALDUFA (Katalunia) *Bye bye, Confetti* (55 min)

18:00 GAS PLAZA

MIREIA MIRACLE (Katalunia) *Rojo* (50 min)

19:00 AREATZAKO TINGLADOAK

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) *Nor bere lekura, prest... ekin!* (30 min)

19:15 AREATZA

ARBRE À VACHE (L) (Frantzia) *Goodbye Persil* (40 min)

20:00 AREATZAKO KAIA

LA BALDUFA (Katalunia) *Bye bye, Confetti* (55 min)

20:30 GAS PLAZA

MIREIA MIRACLE (Katalunia) *Rojo* (50 min)

21:00 AREATZAKO TINGLADOAK

ERTZA (Euskal Herria) *DYE DYE* (25 min)

22:00 ARRIAGA PLAZA

MIQUEL BARCELONA (Katalunia) *[Kórps]* (40 min)



ALTA GAMA CÍA. (Katalunia)

"Mentir lo mínimo" – Zirkua (50 min). 8 urtetik gorakoentzat.

Bidaia bat esentziara, puruenera, ekuazioetik behar ez den guztia kenduz, minimalismoa eta haren oinarriko printzipioak lortzeko: harmonia, adierazkortasuna, zeinu txikietatik abiatuta esanahiak biderkatzea. Bidaia honetan, ikusleen esperientzia azpimarratzen da, ikuskizun propioa bihurtuz, haien oinarriko rola eraldatuz eta artistekin duten harremana arte-ekinza bihurtuz. Erroka handia da pandemia, distantzia eta gelen garaietan; segurtasun-neurri zorrotzenen pean, Alta Gama erakutsiko du gertutasun espiritualak maskarak eta metakrilatoak zeharkatzen dituela.

Mentir lo mínimo ikuskizunak Alejo Gamboa eta Amanda Delgado artistak bilutzen ditu, eta bizikleta akrobatikoaren gaineko interpretazio desberdina eginez harritzen gaitu.

www.ciaftagama.com

EGUENA 1	18:00	AREATZAKO TINGLADOAK
BARIKUA 2	20:30	



AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria)

"Out" – Dantza (20 min). Adin guztietako ikusleenentzat.

Dena ura da. Isila, irmoa, estugarria, ingurutzaila. Fisikak bere lana egiten duen arte. Orduan gainazaleko tentsioa hautsi eta erupzio likidoa iristen da. Askatasunak bere bidea bilatzen du eta larritasuna desagertzen da. Aireak birrikak betetzen ditu. Aske.

Out zuzeneko musika duen dantza garaikideko ikuskizuna da. Lan honek sortzen duen atmosferak bildu egiten zaitu.

www.amaielizaran.com

MARTITZENA 29	17:30 / 19:45	CASILDA ITURRIZAR PARKEA - Pergola
----------------------	----------------------	------------------------------------



ARBRE À VACHE (L) (Frantzia)

“Goodbye Persil” - Kaleko antzerkia (40 min). 8 urtetik gorakoentzat.

“Gizonezko bi gizon Twingo gris baten barruan, hiriko lorategi publiko baten inguruan. Gidaria, txikia, alkandora zuria, gorbata beltza, ile beltza ukitu grisekin eta, bidaia-ria, 1,90 m inguru, ile luze beltza, kolore bereko bizar luzea, galtza zuriak, koadroen alkandora”. Hori izan zitekeen poliziaren adierazpena, misio susmagarri batetik irten diren bi anaia horiei buruzkoa.

Diskrezioa, trebetasuna eta konplizitatea izango dira beren helburua lortzeko gakoak! 50 metroko bidaia errepidean.

www.cielarbreavache.com

BARIKUA 2

19:15

AREATZA

ZAPATUA 3

“BONI” eta JUAN PALOMO (Euskal Herria)

Clowna / Zirkua (arratsalde osoa). Adin guzietako ikusleentzat.

Boni eta Juan Palomo kale-animatzaileak dira. Informazio-gunea ere badira, eta euren postuetatik hurbil pasatzen den pertsona bakoitzarekin zuzeneko eta hurbileko harremana sortzen dute, bezeroaren eta publikoaren arteko lerro mehe horretan jostatzen. “Al barqui, barqui, barqui” aldarriarekin, Boni bere bonboarekin joango da eta bere erruleta biratuko du, barkillo-kopuru egokia ateratzeko, dena clowna dosi on batekin. Juan Palomo, bestetik, bere krispeta-postutik, publikoari ondo pasatzeko aukera emango dio krispetarik gozoenak dastatzeko eta erosteko eskainiz, zirkuarekin eta umore handiarekin onduak, gatz puntu justuarekin.

**ASTELEHENA 28
MARTITZENA 29
EGUAZTENA 30**

17:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Parkearen ingurua



COMPAGNIE N°8 (Frantzia)

"Garden party"– Kaleko antzerkia (70 min). 8 urtetik gorakoentzat.

Munduaren amaiera hurbil dago, kaosak eta anarkiak inbaditu gaituzte... Guztiok? Ez. Burgesia menderaezineko kasta bat dago, krisiari aurre egiten diona. Gizartea gainbehera joan den arren, gizon eta emakume hauek, harrotasunagatik edo etsipenagatik, beren gogortasunak itsututa, beren gizarte-mundua, kodeak, golf-zelaia, tradizioak, luxuzko bizitza... berritzen jarraituko dute.

Kaleko ikuskizuna, gizartearen behaketatik abiatzen dena eta, felliniar errealismoa eta Jacques Tatiren unibertso zentzugabea ikusirik, gaurkotasunari buruzko alegoria kritikoa eskaintzen duena. Alferrikakoaren soziologia.

www.compagnienumero8.com

ASTELEHENA 28

22:00

ARRIAGA PLAZA



DEABRU BELTZAK (Euskal Herria)

"Su Danborrak (25. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia)"

Kaleko antzerkia (35 min). Adin guzietako ikusleenentzat.

Bere 25. urteurrena ospatzeko, Deabru Beltzak *Su Danborrak*, bere lehen ikuskizunaren egokitzapen bikaina, aurkeztuko du.

Aker, akelarreko deabrua, hor dabil kaleetan zehar bere perkusionisten lagun taldearekin gure herri eta hirietan zehar ibiltzeko prest. Zuzeneko musika, piroteknia eta izugarriko efektu espezialez osatutako ikuskizuna. Esku bat danborrean eta bestea "zirian". Honela sortu da Deabru Beltzak taldearen proposamen berria.

Ikuskizun honek, musika, piroteknia eta efektu bereziak nahasten du ibilbidearen zehar.

Su primitiboa eta erritmo sorginduak, ikuslen lilura bihurtzen du.

www.deabrubeltzak.com

BARIKUA 2

22:00

ARRIAGA PLAZA



DELÁ PRAKÁ CÍA. (Frantzia/Brasil)

“*Maiador*” – Zirkua (45 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Maiador ikuskizun zirrargarria da, folklore herrikoia eta Brasilgo kultura mestizajea gogorarazten dituen musikaren eta dantzaren bidez. Festa bat da, eta eszenaren edo zirkoaren tratamenduari buruzko Europako ikuspegiak eta Brasilgo kultura eta musika herrikoia sustrai sakon eta pertsonalak erabat uztartzen dira. Atlantikoaren bi aldeetan eratu, bizi eta sortu diren artista batzuen bizi-esperientziei erantzuteko sortzen den bidegurutzeta.

Brasilgo lau artista hauek beren erritualean parte hartzera gonbidatzen gaituzte, *Maiador* elkarbizitza-eremu horretan, non bikote akrobatiko ikusgarriak, txinatar mastako ikuskizunak, koreografia ederrak eta zuzeneko musika sartzen baitira.

Sakratua eta profanoa nahasten dituen errituala, ikusleak energiaren eta bibrazio onez beteta aterako dena.

www.ciadelapraka.com

ASTELEHENA 28

18:00 / 20:15

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren Museoaren Gunea



ERTZA (Euskal Herria)

"DYE DYE"– Dantza (25 min).

Tonalitateak aldaezinak ez diren bezala, pertsonen esentziak ere ez. Alderantziz, biak tindatu, diluitu eta etengabe urtzen dira tonalitate berriak sortzeko. Kolore berriak.

DYE DYE ikuskizunean bi pertsona elkartu dira, eta beren kolore-paleta, haien jakinduria eta bizitza erakutsiko diote elkarri, urtu eta ortzadar berri bat osatu arte.

Dantza garaikidea, dantza urbanoa eta akrobazia diluituak kolore koreografiko berria sortzeko.

www.ertza.com

ZAPATUA 3	17:00 / 21:00	AREATZAKO TINGLADOAK
------------------	----------------------	-------------------------

EVA GUERRERO CÍA. (Euskal Herria)

"Gorputzu laburra"– Dantza (15 min). 14 urtetik gorakoentzat.

Gorputzu laburra dantza garaikideko pentsatua dagoen ikuskizuna da. Orekaren bilaketari buruz hitz egiten du. Oreka bilatzeko, lasaitasunean egoteko borroka da; zarata isiltzeko, zama eta errua aritzeko, eta piztia lasai egongo den tokia bilatzeko borroka.

Lan hau erlijio batzuen une zehatz batzuetan gorputzaren erabileraren gainean egiten den ikerkuntzatik dator. Gorputza zati-tan banatuz, eta otoi egitean sortzen den mugimendu ekintzak aztertuz, erlijioetan agertzen diren kontzeptuak jorratzen dira, hala nola, errua, penitentzia, transzendentzia, maitasuna, sumisioa... Hemendik jaiotzen da *Gorputzu*.

www.dooscolectivo.es

BARIKUA 2	17:00 / 19:00	AREATZAKO TINGLADOAK
------------------	----------------------	-------------------------



HARROBI (Euskal Herria)

"Harria Herria"– Dantza bertikala (20 min). Adin guztietako ikusleenentzat.

Harria Herria Oreka TX bandaren musika eta Harrobi Dantza Bertikala batzen dituen ikuskizuna da.

Arreta emakumearen irudian jartzen da eta egungo gizartean hartzen duen protagonismoa aldarrikatzen du. Dantza egiten duten emakumeak, eskalatzen ari diren emakumeak, baita harriak altxatzen dituzten emakumeak ere, herrialde bat altxatzen duten bezala.

"Harria" harria da, "Herria", herrialdea.

www.facebook.com/dimegaz

BARIKUA 2

22:00

BIZKAIA ARETOA -
UPV/EHU



HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria)

"Bidearen amaiera" / "Al fin del camino" – Kaleko antzerkia (60 min).
Helduentzat.

Bidearen amaiera lanak, aita bat eta bere semea ditu protagonista; urteetan elkar ikusi gabe egon diren bi gizaseme. Alzheimerrak aitarien bizitza menderatzen duen bitartean, *Drag Queen* baten ibilbide profesionalak semearena definitzen du. Ordurarte, distantziak, gorrotoak eta gaitzespenak markatu dute haien arteko harremana. Baina, ahaidetasunaz ulertzen ez duen patuak bata eta bestea aurrez aurre topatzera eramango ditu; jada ez dago atzera egiterik. Biek beldurrez edo zorionez amestu izan dutena gertatzeaz dago.

Bidearen amaiera kalerako endreduzko komedia bat da, hau da, *vaudeville* emozional bat. Ez dugu soilik protagonisten arteko gaizki-ulerteru eta bizipen komikoz jositako komedia arin baten aldeko apustua egin. Ikus-entzulegoaren barrea eragiteaz gain, ikuskizun honetan emozioetan sakondu eta gogoeta egitea proposatzen dute.

www.hortzmuga.com

EGUAZTENA 30

18:15 / 20:15

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren Museoaren Gunea

Nor bere lekura, prest... EGIN!



HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria)

"Nor bere lekura, prest... ekin!"

Esku-hartze artistikoa (30 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Bizitza bizitzeko dago, noski. Pertsona batzuentzat oztopo-lasterketa bat da, eta gehienok ez gara gai hori ikusteko edo sentitzeko. Gaur, txirindulari hauek erakutsiko digute bizitza benetan bizitzeko dagoela... baina DUINTASUNEZ.

HORTZMUGA TEATROaren bitartekaritza-proiektua, ADEMBIrekin (Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte) lankidetzan, ZEHARKALDIA - Zirkuko Pirinioak programa europarraren Bitartekaritza Laborategiaren esparruan sortu da eta Billoko Udalak antolatu du.

**"TRAVESÍA" – ZIRKUKO
PIRINIOAK mugaz haraindiko
proiektuaren barruan diruz
lagundutako ikuskizuna.**



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzako proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzen duena, POCTEFAren bidez.

www.hortzmuga.com

ZAPATUA 3

19:00

**AREATZAKO
TINGLADOAK**



JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon)

"Calor" – Zirkua / Clowna (50 min). 6 urteik gorakoentzat.

Calor etxerik ez duten pertsona askoren egoeran inspiratzen da. Beren etxeak halabeharrez utzi behar izan zituzten bidaiari derrigortu haiek; arrapaladan atera ziren noraezcan.

Gure garaiko nomada hauek munduan barna dabilza leku baten bila, itsumustuka topo eginez gizarteekin eta kulturekin, hiri eta herri atzerritarrekin. Ikuskizun honek, clowna eta zirkuko arteak tartekatuta, uniberso oniriko eta poetikoa aurkezten dio publikoari, sentitzero, irudimena erabiltzero, irri egiterra, pentsatzera eta jostatzera gonbidatuz...

www.jeanphilippeikolas.com

ASTELEHENA 28	18:30 / 20:30	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Ahateen urmaelaren inguruak (2. Gunea)
MARTITZENA 29		
EGUAZTENA 30		

JOE SATURE ET SES JOYEUX OSSELETS (Frantzia)

"Ouh La La!" – Kaleko antzerkia (60 min). 8 urteik gorakoentzat.

Zer dute komunean orkestra batek, ardi batek, dantzari hawaiiar batek, boto-txartel batek, flamenko-kantari batek eta talasoterapia-ikastaro batek? Lau ameslari! Jotzen duten interpreteak, lau artista, gai batetik bestera jauzi egiten dutenak gure inguruko munduaren alde komikoa erabiliz. Ez bilatu hari gidaria... Ez duzu aurkituko!

www.joesature.com

BARIKUA 2	17:15 / 19:45	GAS PLAZA
------------------	----------------------	-----------

(*) Sarrera 3 €; www.bilbokokalealdia.eus web-orrian eskuratu daitezke.
Batutako dirua ADEMBI – Esklerosi Anizkoitzaren Bizkaiko Elkarteari emango zaio.



KARAKOIL PRODUCTION (Euskal Herria - Iparraldea)

"Mila eta bat loreen lorategia"– Instalazioa (arratsalde osoa).

Adin guztietako ikusleentzat.

Lore-bitxikerietan esperientzia daukaten ikertzaile bik, gizonaeko batek eta emakumezko batek, erabaki dute Casilda Iturrizar parkea ikerketa-laborategi bihurtzea Bilboko Kalealdiaren barruan, lore bakarrak, onirikoak sortzeko: zurezko, metalezko, oihalezko, harizko, argizko eta abarrezko loreak, kolore desberdinetakoak.

2021ean hasiko da esperientzia hori... Eta 2024an... arrakasta izango du apustuak? Zein? Mila eta bat lore asmatu!

www.karakoilproduction.com

ASTELEHENA 28

MARTITZENA 29

EGUAZTENA 30

17:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahateen urmaelaren
inguruak (1. Gunea)



KOLEKTIVO KONIKA (Euskal Herria - Katalunia)

“La punta de mi nariz” – Zirkua (50 min). Adin guztietako ikusleentzat.

“Nire sudurraren punta baino ez dut ikusten. Gure izatearen funtsa ez al dago lotuta kanpoko munduak bidaltzen digun pertzepzioarekin? Ispiluen, erretratuen, argazkien, ukimenaren eta esaten didatenaren bidez bakarrik ezagutzen dut nire aurpegia. Ni ez ezagutzeaz harritzen naiz, baina haiekin bat egiten dut. Errealitate bateratu eta partekatu baterantz joz. Guztion artean eraikitzeko gozamen hutsa bilatuz. Gorputzak gara, hauskorrak, sartu beharreko bloke bihurtzen direnak. Geure buruak zaindu, garraiatu, irristatu, bultzatu egiten ditugu. Bost gorputz jokoan, bost mundu”.

Ikuskizun honetan goitik behera zabalduko dira, emakume gisa dituzten berezitasunak erakusteko, elkarrekin bizi eta sortzen baikira gorputz-hizkuntzaren eta porte akrobatikoen bidez.

Haien errealitatea, haien egia ezagutu eta haiekin bizitzera gonbidatzen zaituztegu.

**“TRAVESÍA” – ZIRKUKO
PIRINIOAK mugaz haraindiko
proiektuaren barruan diruz
lagundutako ikuskizuna.**



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzako proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzen duena, POCTEFAren bidez.

www.kolektivokonika.com

EGUENA 1

17:30 / 20:00

AREATZA



LA BALDUFA (Katalunia)

"Bye bye, Confetti" – Clowna (55 min). 8 urtetik gorakoentzat.

Hiru pailazok Confetti euren liderraren heriotzagatik negar egiten dute. Gidatzen zituen aita izpiritualaren absentzia nabarmena da. Utzi duen hutsunea erabatekoa da. Lidergorik ezak traba egiten die, lur jota uzten ditu, atsekabetu egiten ditu: desolazioa. Norbaitek ordezkatu beharko du? Dolua gainditu ondoren, beste gidari bat bilatzeko gorabeherak hasiko dira.

Pailazo bitxi eta benetakoaren ikuskizuna, non erdizka ibiltzeak ez daukan lekurik. Umorea eta maitasuna, neurri berean. Baina, beste ezeren gainetik, harridura, ikusleek eta antzezleek emozio berberak arnasten dituzten espazio batean.

www.labaldufateatre.com

ZAPATUA 3

17:30 / 20:00

MUELLE DEL AREATZA

LA MAIN S'AFFAIRE (Frantzia)

"All Right!" – Zirkua (40 min). Adin guztietako ikusleenentzat.

Bi artistaren arteko harreman malkartsua: osmosi teknikoa, baina aurkaritza ideologikoa. Nola desmitifikatu entretenimendua eta nola sustatu pentsamendu kritikoa altxamendu akrobatiko harrigarriekin eta ironia ukituarekin? Burleskoa karikaturan erori gabe, zinikoa krudela izan gabe, interaktiboa elkarrizketa behartu gabe, ikuskizuna... *All Right!*

"TRAVESÍA" – ZIRKUKO PIRINIOAK mugaz harandiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna.



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzako-proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzen duena, POCTEFAren bidez.

www.lamainsaffaire.com

MARTITZENA 29

19:15

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren Museoren Gunea

"TRAVESÍA" – ZIRKUKO PIRINIOAK mugaz haraindiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna.



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzako proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzeko duena, POCTEFAren bidez.



LA MAIN S'AFFAIRE (Frantzia)

"En Attendant La Suite" – Zirkua (75 min). 7 urtetik gorakoentzat.

Zatoz eta ezagutu 4 + 1 pertsona, elkarren artean zerikusirik ez dutenak, hain urrun daudenak, baina zuek oso gertu. Ikus ezazu nola eboluzionatuko duten eta giro zapaltzaileara egokituko diren. Giro horretan, *Anaia Handia* misterioitsu batek mugatzen du aukerarena. Borondatezko edo behartutako beguluz denez gero, begiratu bat ematen die bere harreman animatu, intimo eta akrobatikoei.

Sar zaitez giro zinikoan, aurretik jakin ezin denean eta izugarri dibertigarrian, zirkuko antzezpenen bidez

www.lamainsaffaire.com

EGUAZTENA 30

22:00

ARRIAGA PLAZA

"TRAVESÍA" – ZIRKUKO PIRINIOAK mugaz haraindiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna.



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzako proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzeko duena, POCTEFAren bidez.



LA PEZ KONPAINIA (Euskal Herria)

"Secreto nº 12" – Esku-hartze artistikoa (45 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Ahateen urmaeleko baranda batean, Casilda Iturrizar parkean, kolore gorriko pintada txiki bat dago. Honela dio: "Hemen alxor bat dago eta urak baino ez daki".

Ura gaizki gordetako sekretua da, inork nahi ez duena ezkutatzeko du.

Eta ezer itxaron gabe begiratzen diogu, berak gure isla itzultzen digun bitartean. Itsasbehera doa eta dena erakutsiko digu. Dena, isiltzen dugun guztia, dantzatzeko ez duguna, disfirra egiteko beldurrez izerditzeko ez duguna...

Hondoa geratu ziren bizitzaren minutuak erreskatatuko dituzte, bi kolektibo horien (NEVIPEN eta EUSKERIA) errealitateak agerian jartzeko, diziplina artistiko guztien bidez.

Esku-hartze hori Bilbon ZEHARKALDIA-ZIRKUKO PIRINIOAK proiektuaren barruan egin zen bitartekaritza-laborategitik sortu zen. Horri esker, konpainiak hainbat bilera izan zituen Bilboko Koral Elkarteak NEVIPEN – Ijitoen Integrazioarako Elkarteak eta EUSKERIA ABESBATZA Elkartearekin.

www.arauntheworld.com/la-pez

EGUAZTENA 30

18:45

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahateen urmaelaren inguruak (1. Gunea)



LIBERTIVORE (Frantzia)

"Phasmes" – Zirkua / Dantza (30 min). 7 urtetik gorakoentzat.

Marseillako konpainia harrigarria, *Hetre* bere azken lanaren ondoren, itxaropen guztiak aldatzeko prest dago bi dantzari akrobatiko handik interpretatutako *Phasmes* proiektu berriarekin. Giza animaltasunean zeharreko bidaia, maila tekniko absolutuan.

Fanny Sorianok zirkua eta dantza nahasten dituen lan performatiboa egin du Libertivore konpainiarentzat, gai organikoari buruzko ikerketak bultzatua. Funtsean metafisikoa den zirkua, naturaren eta giza naturaren arteko harremanak aztertzeko helburua duena.

www.libertivore.fr

MARTITZENA 29

EGUAZTENA 30

18:00 / 20:00

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Ahateen urmaelaren
inguruak (3. Gunea)



MAITE GUEVARA (Euskal Herria)

"¡Qué Buen Día!" – Clowna (50 min). 5 urtetik gorakoentzat.

Martina alaia eta dibertigarria iritsi da, aulkiarekin eta kanpin-hozkailuarekin.' Hortik objektu ezinezkoak, partekatzeko jolasak, pasadizoak, istorioak... aterako dira.

Ikusleek, orain, "piknik komunitate" horretatik abiatuta, joko horietan parte hartu beharko dute, beren irudimenarekin objektuak sortu eta Martinarekin inprobisatu.

Sormen-lan horretan, irudimenaren indarra eta bizitzaren aurrean dugun jarreraren garrantzia landu nahi izan ditu. Martinak dioenez: "Jolastera etorri ez bagara, zertarako etorri gara?"

Garai hauetarako oso beharrezkoa den mezu batez betetako ikuskizuna. Bizitzaren aurrean dugun jarrerari buruz gogoeta eginaraziko digu, baina, batez ere, barre, imajinatu, partekatu... eragingo digu. Egunero izan daitekeelako Egun on bat!

**"TRAVESÍA" – ZIRKUKO
PIRINIOAK" mugaz
harandiko proiektuaren
barruan diruz lagundutako
ikusbizuna.**



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzako-proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzen duena, POCTEFAren bidez.

www.maiteguevaraartist.com

ASTELEHENA 28	19:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Ahateen urmaelaren inguruak (4. Gunea)
MARTITZENA 29	18:30	



"TRAVESÍA" – ZIRKUKO PIRINIOAK" mugaz haraindiko proiektuaren barruan diruz lagundutako ikuskizuna.



Travesía es un proyecto de cooperación Interreg co-financiado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) de la Unión europea a través del POCTEFA.



MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA (Euskal Herria)

"ZIRKUS" – Zirkua (50 min). 6 urtetik gorakoentzat.

ZIRKUS-ek "Compañía Amateur del Club Deportivo"-aren istorioa kontatzen du, historiaren kuxatit euskal zirkuaren atal eder bat berreskuratzeko asmoz.

Bilbon, 1931. urtean sortutako taldea dugu eta 1936ra arte umezurtegietara, ospitaleetara, nagusien egoitzetara irribarrea eta ilusioa eramateko helburuaz sortu zen.

Guk, 90 urte geroago artista horien azalean jartzera jolasten dugu, konpainiaren gertakari eta protagonista nagusiak ardatz hartuta haien emanaldiak nolakoak ziren imaginatu dugu eta ikusle guztientzako ikuskizun dibertigarria eskaintzen dugu, malabarismo, akrobazia, ekilibrismo, zuzeneko musika eta umore eta sorpresaz beterikoa.

www.malaskompanias.com

EGUAZTENA 30	17:30 / 19:30	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Pergola
---------------------	----------------------	-------------------------------------

MIQUEL BARCELONA (Katalunia)

"[Kórps]" –Dantza (40 min). 7 urtetik gorakoentzat.

Diziplina anitzeko proposamen eszenikoa, dantza garaikidea ardatz duena eta musika elektronikoarekin, ahotsarekin, argiarekin eta antzerkiarekin hitz egiten duena.

Ikuskizunaren erreferentea mitologian eta arteetan gehien agertzen den belea da, txori orojalea eta sarraskijalea. Heriotzarekin lotuta, mundu lurtarraren eta mundu espiritualaren arteko bitartekaria da.

[Kórps] lanean corpse hitz ingelesaren homofoniarekin ere jolasten da; gorpua, gorputz geldoa esan nahi du.

Herri-tradiziotik eta giza praktiketarik edaten duen pieza da, indarkeria, kandela eta heriotzarekin.

www.miquelbarcelona.com

ZAPATUA 3	22:00	ARRIAGA PLAZA
------------------	--------------	---------------



MIREIA MIRACLE COMPANY (Katalunia)

"Rojo" – Zirkua / Clowna (55 min). 5 urtetik gorakoentzat.

Pailazoa maleta batetik atera da, ikusleak bere familia bihurtu ditu, eta ilusioz beterik eta traste pila batekin agur esan dio. Baina oztopo batek, muga batek, eten egingo du bidaiak. Muga horrek ahalbidetuko dio jolasa, dantza eta bere bidean jartzen denari aurre egiteko moduak.

Ikusleak ikuskizunaren zati izango dira bidaiak osoan: musuzapi zuriak astinduz agurtzen den jendetza, janzen laguntzen dion ama, alanbre-hesiaren beste aldean berarekin kafea hartzen duen gizona, salto egiteko soka bat eskaintzen dion emakumea edo etxeko teilatuari eusten dioten zutabe bihurtzen diren mutilak.

Azkenean, eta guztiei esker, bere helburua lortuko du: askatasuna.

www.mireiamiraclecompany.com

ZAPATUA 3

18:00 / 20:30

GAS PLAZA



PIA (Portugal)

"O₂ Oxygen" – Kaleko antzerkia (50 min). 6 urtetik gorakoentzat.

PIA konpainiaren ekoizpenik berriena da. Performance horrek, antzerki fisikoaren eta forma animatuen lengoaien bidez, gogoeta bat egitera gonbidatzen du publikoa, teknologiak giza harremanak desegiten dituen eta oxigenoa eskuratzeko aukera luxua den gizarte batean nola biziraun daitekeen hausnartzeko.

Kultura arteko arte publikoko proiektua da, 2019. urtearen hasieran sortua, Macao hirian. Han, partikula poluitzaileen maila kezagarrien erregistroak behin eta berriz errepikatzen dira.

Agertoki idilikoa, baina arrazoi desegokiengatik, jendea sentsibilizatzeko sortu den lan bat egiteko. Izan ere, praktika jasangarriak bilatu behar dira, gaur egun, guztioi eragiten ari zaizkigun ingurumen-arazo kaltegarriak gainditzeko.

www.piacri.com

MARTITZENA 29

22:00

AREATZA



**"TRAVESÍA" – ZIRKUKO
PIRINIOAK mugaz
harandiko proiektuaren
barruan diruz lagundutako
ikuskitzuna.**



TRAVESÍA - ZIRKUKO PIRINIOAK
Travesía Interreg lankidetzaren proiektu bat da, Europar Batasuneko FEDER Eskualde Garapenerako Europar Funtsak zati batean finantzatzeko duena, POCTEFAren bidez.



ROJO TELÓN (Euskal Herria)

"Nudo" – Zirkua (50 min). Adin guztietako ikusleentzat.

Eta zeruak berriro hartuko dituzte zapaltzen dituzten korapiloak askatzeko. Eta betiereko bakanal batean sartuko dira, lozorro-egoeran sartzeko eta, horrela, hedatzeko eta berriro ere haiek izateko.

Eta nor dira emakumeak? Hiru korapilo-askatzaile. Umorearen, interpretazioaren eta zirkuko tekniken bidez (airekoak eta lurrekoak), mundu desberdinak biziko dituzte hiru emakume, ikusleak "zeruko" esperientzia bizi dezaten.

www.rojotelon.com

ASTELEHENA 28

17:30 / 19:30

CASILDA ITURRIZAR PARKEA
Pergola

ROUGE ELEA (Euskal Herria - Iparralde)

"¡Aquí estamos, todo bien!" – Zirkua / Dantza (40 min). 10 urtetik gorakoentzat.

Bi emakumek eta gizon batek nerabegaroko pasadizo bat oroitzen dute. Hartan, munduko azken hiru hartz zuriak zirela imaginatzen zuten, noraezean zihonan izeberg baten gainean. Egun batean, barre zoro, arrazoigabe eta intentsu baten ondoren, promesak egin zizkioten elkarri eta momentu hura izozteko borrokan dabilza orduik.

Izatearen zentzuaz galdetzen dute pikutara doan gizarte bati begira. Ze paradoxa da esistentziaren zentzugabekeri hau? Ezdeusa izan eta hala ere hemen egotearen sententzio hori. Hala bada, izan gaitzen osoki.

Ura dugu txorkatiletaraino, galtzerdiak blai ditugu baina hemen gaude, dena ongi!

Nerabegaroren begiradak gidatzen du ikuskitzaren testua, interpretazioa eta dramaturgia.

Rouge Elea konpainiako ikuskitzuneak aireko zirkua, dantza, musika eta objektuen arteko bidegurutzean dagoen poetika aztertzen dute.

Konpainiak forma artistiko desberdinak aztertzen ditu mundua eta gizakia bere konplexutasun osoan galdetzeko.

www.rougeelea.com

EGUENA 1

17:00 / 19:15

GAS PLAZA



TROCOS LUCOS (Madrid)

“Tartana” – Zirkua (50 min). Adin guztietako ikusleenentzat.

Akrobataz osatutako hirukote gazte honek Koreako baskularen teknika harrigarriaren sormen-aukerak erakutsiko dizkigu. Teknika ahalik eta gehien aprobeztatuz, Trocos Lucos diziplina horretako promesa handienetako bat da gaur egun, intentsitate biziko eta dibertitzeko ikuskizun batean frogatzen duten bezala. Teknikarik tradizionalenetik abiatuta, konpainiak berrikuntza garrantzitsuak eta urte askotako ikerketen emaitzak biltzen ditu, eta eszenografian furgoneta bat jartzen du, altuera desberdinak dituzten plataformetan lan egiten laguntzeko.

Funtsean proposamen ludikoa, ausarta eta dibertigarria da, ezinezko akrobaziez goatzeko aukera ematen duena. Hala ere, akrobatan nortasun ezberdinak erakusten, umorea ahalik eta gehien garatzen eta historia pertsonala kontatzen ahalegintzen da: artista gazte talde batena, egungo munduaren kompleksutasunari aurre egiten diona.

www.trocoslucos.com

EGUENA 1	18:30	AREATZAKO KAIA
BARIKUA 2	18:15	



ZEN DEL SUR (AndaluCÍA.)

"Órbita" – Zirkua / Dantza (55 min). Adin guztietako ikusleenentzat.

Orbita: objektu fisiko batek beste baten inguruan egiten duen ibilbidea, indar zentral baten eraginpean.


Carlos López eta Noemí Pareja fenomeno horretan inspiratzen dira artista gisa ibiltzearen alegoria agertokian irudikatzeko. Gure sustraien erakarren grabitatorioaren azpian gure nahietara goazen zikloa da, eta gure erdigunera, gure jatorrira, eramaten gaitu etengabe.

Konpainiak ikasteko modu batekin konprometituta dago, non inprobisazioa eta hizkuntza berrien azterketa erabakigarriak baitira bere sorkuntza-prozesu osoan. Artisten izaera polifazetikoa eta musikarekin bat egindako gorputz adierazgarritasuna eta kontrolaren bidez eszenan sensibilitate berezia sortu eta transmititzeko duten gaitasuna nabarmentzen dira.

EGUENA 1

22:00

ARRIAGA PLAZA



- 1 ALTA GAMA CÍA. (Katalunia/Cataluña)
- 2 AMAIA ELIZARAN (Euskal Herria)
- 3 ARBRE À VACHE (L) (Frantzia/Francia)
- 4 "BONI" y JUAN PALOMO (Euskal Herria)
- 5 COMPAGNIE N°8 (Frantzia/Francia)
- 6 DEABRU BELTZAK (Euskal Herria)
- 7 DELÁ PRAKÁ CÍA. (Frantzia/Francia/Brasil)
- 8 ERTZA (Euskal Herria)
- 9 EVA GUERRERO CÍA. (Euskal Herria)
- 10 HARROBI (Euskal Herria)

- 11 HORTZMUGA TEATROA "Al final del camino" (Euskal Herria)
- 12 HORTZMUGA TEATROA "Preparados/as, listos/as... ¡acción!" (Euskal Herria)
- 13 JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Castilla y León)
- 14 JOE SATURE ET SES JOYEUX OSSELETS
- 15 KARAKOIL PRODUCTION (Euskal Herria Norte)
- 16 KOLEKTIVO KONIKA (Euskal Herria)
- 17 LA BALDUFA (Katalunia/Cataluña)
- 18 LA MAIN S'AFFAIRE "All Right!" (Frantzia/Francia)
- 19 LA MAIN S'AFFAIRE "En Attendant La Suite" (Frantzia/Francia)
- 20 LA PEZ KONPAINIA (Euskal Herria)

- 21 LIBERTIVORE (Frantzia/Francia)
- 22 MAITE GUEVARA (Euskal Herria)
- 23 MALAS COMPAÑÍAS ZIRKO TALDEA (Euskal Herria)
- 24 MIQUEL BARCELONA (Katalunia/Cataluña)
- 25 MIREIA MIRACLE COMPANY (Katalunia/Cataluña)
- 26 PIA (Portugal)
- 27 ROJO TELÓN (Euskal Herria)
- 28 ROUGE ELEA (Euskal Herria Norte)
- 29 TROCOS LUCOS (Madrid)
- 30 ZEN DEL SUR (Andalucía.)